

KONTROL MOZIOA

ILUNBEKO ZEZENKETA FERIARI BITARTEKO PUBLIKO GEHIAGO EZ EMATEARI BURUZKOA

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga EH Bildu udal taldeko zinegotziak Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2022ko martxoko Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Covid-19 pandemiak eragindako osasun krisiaren ondoren, eta 2019. urtetik egin gabe egon ondoren, aurten berriro ere zezenketen Aste Nagusiko Feria izango da hirian. Jakina da ekitaldi honek donostiar askoren artean sortzen duen kontrakotasuna. Zentzu honetan, Donostiako EH Bilduko udal taldeak interpelazioa aurkeztu zuen 2022ko uztailaren 11ko Pertsonentzako Batzordean, Gipuzkoako Plataforma Antitaurinak hala eskatuta. Bertan, besteak beste, 2022ko Aste Nagusi ofizialaren egitarauan Ilunbeko zezenketen programa egokituko ote zuen galdetu genuen. Izan ere, 2019ko abuztuko jaietako egitarauaren barruan ekitaldi hau jasotzen zen.

Zinegotzi ordezkariak emandako erantzunaren arabera, 2019an kargua hartu zuenerako urte horretako egitaraua eta kartela itxita zegoen, eta ezin izan zuen inolako erabakirik hartu horren gainean. Hala ere, ondorengoa ere gehitu zuen: "Printzipioz bada nire asmoa Donostia Kulturak zuzenean antolatzen edo zeharka babesten dituen ekitaldiak soilik sartzea aurten programan, eta zezenketak ez daude horien artean, ez baitute irizpide hori betetzen". Alegia, zezenketek ez dutela Udalaren "ez laguntza ez finantziarioa" jasotzen, eta beraz, ez direla definizio horren barruan kokatzen.

Arestian esan bezala, jakina da zezenketek donostiar askoren sortzen duten kontrakotasuna. Horren adibide dira urtero, abuztuan antolatzen den manifestaldia edo, besteak beste, 2017an eta Donostia Estrategia Bulegoak bultzatuta egindako inkestan jasotako iritziak. Galdetegi horretan ondorengoa galdetzen zen: *¿Quiere usted que el Ayuntamiento destine recursos municipales para la realización de corridas de toros?*. Jasotako erantzunen arabera,

galdetutako donostiarren artean % 71k ezezkoa esan zuen, % 18ak baiezkoa eta, azkenik, % 11k *“no sabe, no contesta”*.

Donostiako Zezenketen Aurkako mugimenduak behin eta berriro adierazi du Espainiako Konstituzio Auzitegiak hirian gaiari buruz egitekoa zen herri-galdeketa atzera bota ondotik egindako beste inkesta honetan behar bezain argi agertzen dela zein den hiriko iritzia nagusia, eta, beraz, Donostiako Udal Gobernuak baduela zeri heldu Ilunberi buruzko erabakiak hartzerako orduan. Zentzu honetan, 2022ko abuztuaren 13an kalera irtengo dira, aurten ere, “Udalak, herriaren borondateari entzungor eginez, Ilunben zezenketak ahalbidetu dituelako”.

Horregatik guztiarengatik, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

1.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, donostiarren gehiengo zabal batek Ilunben zezenketak egitearen inguruan duen iritzia kontuan hartuta, ez dezala Aste Nagusiko Feria delakoaren programazioa jaietako egitarau ofizialean egokitu, ez aurten, ez aurrerantzean ere.

2.- Donostiako Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, donostiarren gehiengo zabal batek Ilunben zezenketak egitearen inguruan duen iritzia kontuan hartuta, ez dezala bestelako zerbitzu edo bitarteko publikorik (suhiltzaileak...) dohainik eskaini ekitaldi hau egiteko.

Donostian, 2022ko uztailaren 15ean

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga
EH Bildu udal taldeko zinegotzia